ELGOIBAR
UDALA
AYUNTAMIENTO

Hirigintza
Urbanismo
2023HBES0016

# URRUZUNOKO ORTUAK

## ERABILTZEKO ETA FUNTZIONATZEKO ARAUAK


1.- ORTUEN ESPARRUAN DAUDEN INSTALAZIOAK
2.- ORTUETARA SARRERA ETA ESPARRUAREN ORDUTEGIA
3.- ORTUAK ERABILTZEAN IZAN BEHARREKO ARDURA
4.- ZUZENDARITZA BATZORDEA ETA ORTUEN ERABILTZAILEEN ERKIDEGOAREN ORDEZKARIA IZENDATZEA
5.- ARMAIRUAK ESLEIPENDUNEN ESKU JARTZEA
6.- UDALAK UTZIKO DITUEN TRESNAK
7.- ERABILTZAILEEI EMANGO ZAIZKIEN GILTZAK
8.- UREZTATZEA
9.- ITURRIA
10.- NEKAZARITZA EKOLOGIKOA
11.- HONDAKINEN TRATAMENDUA
12.- UDALAREN IKUSKAPENA
13.- ORTUAREN APROBETXAMENDUA
14.- ERABILTZAILEEN BETEBEHARRAK


# HUERTAS DE URRUZUNOKO

## NORMAS DE USO Y FUNCIONAMIENTO


1.- INSTALACIONES DEL RECINTO DE HUERTAS
2.- ENTRADA Y HORARIO DEL RECINTO DE HUERTAS
3.- DILIGENCIA EN EL USO DE LAS INSTALACIONES
4.- DESIGNACIÓN DE LA JUNTA RECTORA Y DE REPRESENTANTE DE LA COMUNIDAD DE PERSONAS USUARIAS DE LAS HUERTAS
5.- PUESTA A DISPOSICIÓN DE TAQUILLAS
6.- HERRAMIENTAS QUE PONE A DISPOSICIÓN EL AYUNTAMIENTO
7.- LLAVES QUE SE ENTREGARAN A LAS PERSONAS USUARIAS
8.- EL RIEGO
9.- LA FUENTE
10.- AGRICULTURA ECOLÓGICA
11.- TRATAMIENTO DE RESIDUOS
12.- INSPECCIÓN MUNICIPAL
13.- APROVECHAMIENTO DE LA HUERTA
14.- OBLIGACIONES DE LAS PERSONAS USUARIAS


### 1.- ORTUEN ESPARRUAN DAUDEN INSTALAZIOAK

Ortuen esparruan honako instalazio hauek daude:

- SARRERAKO HESIA
- ERABILTZAILE GUZTIENTZAKO TXABOLA
- ARMAIRUAK ERABILTZAILE GUZTIENTZAKO TXABOLAN (ARMAIRU BAT ERABILTZAILE BAKOITZEKO)
- UDALAK JARRIKO DITUEN LANABESAK
- EURI URAREKIN UREZTATZEKO BI ANDEL + UREZTAGAILUAK
- ITURRI BAT (EDATEKO URA)
- KONPOSTAGAILU BAT (AUZO KONPOSTA)

### 1.- INSTALACIONES DEL RECINTO DE HUERTAS

El recinto de huertas está dotado de las siguientes instalaciones:

- VERJA DE ENTRADA
- UNA CHABOLA COMÚN
- TAQUILLAS EN LA CHABOLA COMÚN (UNA TAQUILLA PARA CADA PERSONA USUARIA)
- HERRAMIENTAS QUE PROPORCIONA EL AYUNTAMIENTO
- DOS DEPÓSITOS PARA RIEGO CON AGUA DE RECOGIDA PLUVIAL+ REGADERAS
- UNA FUENTE (AGUA POTABLE)
- UNA COMPOSTADORA (AUZO KONPOSTA)

### 2.- ORTUETARA SARRERA ETA ESPARRUAREN ORDUTEGIA

Hona hemen ortuen esparrura sartzeko ordutegia: 8:30 -18:30 udazken-neguan (azaroa-abendua-

### 2.- ENTRADA Y HORARIO DEL RECINTO DE HUERTAS

El horario de acceso al recinto de huertas será de 8:30 a 18:30 en otoño-invierno (nov-dic-ene-febr) y de 8:30 a 22:00 en primavera-verano (mar-abril-

urtarrila-otsaila) eta 8:30-22:00 udaberri-udan (martxoa-apirila-maiatza-ekaina-uztaila-abuztua-urria), asteburuetan barne.

mayo-jun-jul-agos-sept-octu), incluyendo fines de semana.

Erabat debekatuta dago, bai ortuen esparrura, bai parkearen beraren barrualdera, ibilgailu pribatuak sartzea.

Queda prohibida la introducción de vehículos privados tanto al recinto de huertas, como al interior del propio parque.

## 3.- ORTUAK ERABILTZEAN IZAN BEHARREKO ARDURA

## 3.- DILIGENCIA EN EL USO DE LAS INSTALACIONES

Ortuetako instalazioak behar bezalako ardurarekin erabili eta mantendu beharko dira, eta ahalegina egingo da ortuak Udalari itzultzeko eman diren baldintza berberetan.

Las instalaciones de las huertas deberán ser usadas y mantenidas con la debida diligencia, intentando que sean devueltas al Ayuntamiento en las mismas condiciones en las que han sido entregadas.

## 4.- ZUZENDARITZA BATZORDEA ETA ORTUEN ERABILTZAILEEN ERKIDEGOAREN ORDEZKARIA IZENDATZEA

## 4.- DESIGNACIÓN DE LA JUNTA RECTORA Y DE REPRESENTANTE DE LA COMUNIDAD DE PERSONAS USUARIAS DE LAS HUERTAS

Ortuak erabiltzen dituzten pertsonak antolatu egin beharko dira, eta, horretarako, 4 eta 6 pertsona arteko talde bat aukeratuko dute zuzendaritza batzordea eratzeko. Adibide gisa, talde horretan honako figura hauek egongo dira:

Las personas usuarias de las huertas deberán organizarse eligiendo un grupo de 4 a 6 personas aproximadamente, que constituirán la junta rectora. A modo enunciativo, en dicho grupo existirán las siguientes figuras:

Diruzaina (erabiltzaileek guztien gaietarako, adibidez, ongarria erosteko e.a. jar dezaketen dirua kudeatuko du).

Tesorero (que gestionará el dinero que eventualmente puedan aportar las personas usuarias para temas comunes, p. ej. compra de abono, etc…).

Komunikazio arduraduna (whatsapp taldearen bidez, guztiei eragiten dieten komunikazioen berri emango die gainerakoei: adibidez, prestakuntza ikastaroak egingo direla, e.a.).

Responsable de comunicación (que se encargará de abrir a los demás mediante el grupo de wasap, las comunicaciones que afecten a todos, p.ej. celebración de cursos de formación etc.).

Guztien konpostagailuaren arduradunak (2 edo 3 pertsona) (konpostagailuak ongi funtzionatzeaz arduratuko dira).

Responsables de la compostera común (2 o 3 personas) (que se encargarán de su correcto funcionamiento).

Erabiltzaile berriei harrera egiteko eta ortuen erkidegoari buruzko funtzionamendua azaltzeko arduraduna.

Responsable de recibir a nuevas personas usuarias y explicarles el funcionamiento de la comunidad de huertas.

Guztien lanabesak zaintzeko eta mantentze lan "txikiak" egiteko arduraduna (lanabesak zaintzeaz, haiei buruzko oharrak emateaz, berriz jartzeaz… arduratuko da).

Responsable del cuidado y "pequeño" mantenimiento de las herramientas comunes (que se encargara de su cuidado, avisos, reposición…)

Batzordea osatzen duten pertsonen artetik, ordezkari bat izendatuko da, Udalaren solaskide izan dadin.

De entre las personas integrantes de la junta, se nombrará a una persona representante para actuar como interlocutora con el Ayuntamiento.

Ortuei dagokienez, Udalari egiten zaizkion eskaera bateratu guztiak ordezkari horren bitartez egin beharko dira.

Cualquier petición conjunta al Ayuntamiento, en relación a las huertas, será realizada a través de la persona representante.

Batzordekideak botoen gehiengoarekin aukeratuko dira, baldin eta hautagaitza bat baino gehiago baldin badago, eta hautagairik ez badago, zozketa egingo da batzordekideak aukeratzeko.

Los miembros de la junta serán elegidos por mayoría de votos, en caso de que haya más de una candidatura, y si no hubiera personas candidatas, la elección será realizada mediante sorteo.

## 5.- ARMAIRUAK ESLEIPENDUNEN ESKU JARTZEA

## 5.- PUESTA A DISPOSICIÓN DE TAQUILLAS

Esleipendun bakoitzari armairu bat utziko zaio berak bakarrik erabiltzeko (norberaren objektuak eta tamaina txikiko lanabesak). Armairuaren zenbakia eta ortuarena berdinak izango dira.

A cada adjudicatario se entregará una taquilla para su uso personal (objetos personales y herramientas propias de dimensiones pequeñas) La numeración será la misma que la de la huerta.

Norberaren objektuak dagokion armairuan gordeko dira, eta ezin izango dira utzi guztiek erabiltzen dituzten guneetan.

Los objetos propios de cada uno deberán ser depositados en la taquilla correspondiente, y no podrán ser dejados en las zonas comunes.

## 6.- UDALAK UTZIKO DITUEN TRESNAK

## 6.- HERRAMIENTAS QUE PONE A DISPOSICIÓN EL AYUNTAMIENTO

Udalak tresna batzuk jarriko ditu ortuen erkidegoaren esku. Tresna horiek txabolan gordeko dira. Zerrenda arau hauen Eranskinean jasota dago.

El Ayuntamiento pondrá a disposición de la comunidad de huertas una serie de herramientas, las cuales serán guardadas en la chabola. El listado se recoge en el Anexo a las presentes normas.

Udalak emandako tresnen inbentarioa txabolan jarriko da, erabiltzaile guztiak jakinaren gainean egon daitezen.

Se colocará en la chabola el inventario de utensilios proporcionados por el Ayuntamiento, para conocimiento de todas las personas usuarias.

Erabiltzaileek tresnak zaindu eta behar adinako kontuarekin erabili beharko dituzte. Era berean, erabili ondoren, garbitu egin beharko dituzte tresnak (itsatsitako lokatza kendu…) eta bere lekuan utzi.

Estas deberán custodiar las herramientas y utilizarlas con el cuidado adecuado. Asimismo, después de su uso, deberán proceder a la limpieza de las herramientas (quitar el barro pegado…) y depositar las mismas en su lugar.

Erabiltzaileen erkidegoaren ardura izango da tresna horiek mantendu eta berriz jartzea.

Será responsabilidad de la comunidad de usuarios el mantenimiento y reposición de dichas herramientas.

Guztien tresnak zentzuz erabili beharko dira, gehiegikeriarik gabe. Hala, adibidez, erabiltzaile jakin batek ezin izango ditu guztienak diren tresnak bere ortuan eduki, baldin eta tresna horiek erabiltzen ari ez bada eta tresnak erabili behar dituzten beste erabiltzaile batzuk badaude.

Las herramientas comunes deberán ser utilizadas con sentido común y sin conductas abusivas. Así, por ejemplo, una persona usuaria no podrá tener en su huerta herramientas comunes que no esté utilizando, si hay otras personas usuarias que necesitan usar las mismas.

7.- ERABILTZAILEEI EMANGO ZAIZKIEN GILTZAK

Erabiltzaile bakoitzari 3 giltza emango zaizkio: bat hesiarena, beste bat txabolarena, eta beste bat, armairuarena.

Debekatuta dago ortuetara sartzeko giltzak uztea udal arduradunek berariaz baimendu ez duten pertsona orori.

Edozein arrazoi dela medio, erabiltzaileren batek ortua erabiltzeko baimena izateari uzten badio, giltzak itzuli beharko dizkio Udalari.

7.- LLAVES QUE SE ENTREGARAN A LAS PERSONAS USUARIAS

Se entregará a cada persona usuaria 3 llaves: una de la verja/ otra de la chabola / otra de la taquilla.

Queda prohibido ceder las llaves de acceso a las huertas a cualquier persona que no esté expresamente autorizada por los responsables municipales.

Cuando, por cualquier causa, la persona usuaria deje de tener licencia de uso de la huerta, deberá entregar las llaves al Ayuntamiento.

8.- UREZTATZEA

Ortuak **ureztagailuen bitartez** ureztatuko dira, eta, horretarako, **ureztatzeko bi andelak** erabiliko dira. Ez da inoiz edateko uraren iturria erabiliko.

Ezin izango da manipulatu edo eraldatu jarrita dagoen uraren hartunea. Ez da baimenik emango mahukarik erabiltzeko, ez partzela ureztatzeko, ez ordezko ureztatze sistemak hornitzeko.

Arduraz kontsumitu beharko da ureztatzeko ura.

Udalak ez die erabiltzaileei ura kobratuko, baldin eta baliabide hori zentzuz erabiltzen bada. Ura gehiegikeriaz erabiltzen dela ikusiz gero, Udalak ura kobratzeko eskubidea izango du.

8.- EL RIEGO

El riego de las huertas **se realizará mediante regaderas** utilizando para ello los **dos depósitos para riego**, nunca utilizando la fuente de agua potable.

No se podrá manipular o modificar la instalación de la toma de agua existente. No está permitido el uso de mangueras, ni para el riego de la parcela ni para abastecer sistemas de riego alternativos.

Se deberá consumir el agua para el riego de forma responsable.

El Ayuntamiento no cobrará el agua a las personas usuarias, siempre que se haga un uso racional de dicho recurso. En caso de que se observen despilfarros, el Ayuntamiento se reserva el derecho al cobro del agua.

9.- ITURRIA

Edateko uraren iturria ura edateko erabiliko da, eta debekatuta egongo da ortuak ureztatzeko erabiltzea.

9.- LA FUENTE

La fuente de agua potable será utilizada para beber agua, quedando prohibida su utilización para el riego de las huertas.

10.- NEKAZARITZA EKOLOGIKOA

Baimenduta egongo den nekazaritza mota NEKAZARITZA EKOLOGIKOA izango da (ekoizpen ekologikoak zoruaren materia organikoa mantentzen eta areagotzen duten, zoruaren egonkortasuna eta bioaniztasuna indartzen duten eta trinkotzea eta higadura saihesten dituzten praktikak bakarrik

10.- AGRICULTURA ECOLÓGICA

La forma de agricultura permitida será la AGRICULTURA ECOLÓGICA (la producción ecológica recurrirá exclusivamente a las prácticas de labranza y cultivo que mantengan e incrementen la materia orgánica del suelo, refuercen su estabilidad y biodiversidad y prevengan la compactación y la

baliatuko ditu). Ekologia-egiaztagiriak dituzten ongarriak eta produktu fitosanitarioak bakarrik erabiliko dira.

Erabiltzaileek nekazaritzako praktika ekologikoei buruzko ezagutzak izan beharko dituzte. Horretarako, **hasieran, nahitaez parte hartu beharko dute** Udalak **nekazaritza ekologikoari** buruz antolatuko duen **formazio batean**.

Era berean, finkaren ingurumen kudeaketan lagundu beharko dute, baita bertan egingo diren ingurumen hezkuntzako programetan ere.

## 11.- HONDAKINEN TRATAMENDUA

Ortuan sortzen diren **hondakin organikoak** esparruan instalatuta dagoen konpostagailuan utziko dira deskonposatzeko, eta, horretarako, aurrerago adieraziko den prestakuntza ikastaroan emango diren jarraibideak izango dira kontuan.

Konpostagailua erkidea da, eta erabiltzaileen erkidegoa izango da modu egokian erabiltzeaz arduratuko dena.

Horretarako, Udalak derrigorrezko ikastaro bat emango du, ortuak erabiltzen dituzten pertsona guztiek konpostagailua erabiltzen ikasteko.

Gainerako hondakinak, berriz, Udalak berariaz jarriko dituen guneetan edo edukiontzietan bakarrik utzi ahal izango dira, hau da, ortuen gunetik kanpo.

## 12.- UDALAREN IKUSKAPENA

Udalak udal-ikuskatzaile bat izendatuko du ortuak erabiltzen dituzten pertsonek betebeharrak betetzen dituztela zaintzeko.

Betebeharrak betetzen ez direla ikusiz gero, Udalari emango dio horren berri, dagozkion ondorioetarako.

Erabiltzaileen erkidegoaren ordezkariari aditzera emango zaio nork egingo dituen udal ikuskaritzako lanak.

erosión). Se utilizarán únicamente abonos y productos fitosanitarios certificados ecológicamente.

Las personas usuarias deberán tener conocimiento acerca de las prácticas agrícolas ecológicas. A tal fin deberán **asistir inicialmente de forma obligatoria a una formación sobre agricultura ecológica** organizada por el Ayuntamiento.

Asimismo, deberán colaborar en la gestión ambiental de la finca y en los programas de educación ambiental que se desarrollen en ella.

## 11.- TRATAMIENTO DE RESIDUOS

Los **residuos orgánicos** procedentes de la huerta serán depositados en la compostera instalada en el recinto para su descomposición, siguiendo las instrucciones que se darán en el curso formativo que abajo se indica.

Se trata de una compostera comunitaria y será la comunidad de personas usuarias la que se haga cargo de su correcta utilización.

A tal efecto, el Ayuntamiento impartirá un curso obligatorio del manejo de la compostera a todas las personas usuarias de huertas.

El resto de los residuos serán depositados únicamente en los espacios o contenedores colocados a tal efecto en la vía pública por el Ayuntamiento, es decir, fuera de la zona de huertas.

## 12.- INSPECCIÓN MUNICIPAL

El Ayuntamiento nombrará un inspector municipal que vigile el cumplimiento de las obligaciones de las personas usuarias.

En caso de que observara incumplimientos, lo pondrá en conocimiento del Ayuntamiento a los efectos oportunos.

Se comunicará a la representante de la comunidad de personas usuarias quién ejercerá las labores de inspección municipal.

## 13.- ORTUAREN APROBETXAMENDUA

a) Ortua nekazaritzarako bakarrik erabiliko da, eta nekazaritza ekologikoaren arloan indarrean dagoen araudiak ezarritako printzipioen arabera landatuko da. Debekatuta dago, beraz, landaketetan honako hauek erabiltzea: herbizidak, pestizidak eta nekazaritza ekologikoaren arloan indarrean dagoen legediak baimentzen ez dituen ongarri kimikoak. Era berean, ezin izango dira erabili espezie transgenikoak edo genetikoki eraldatuta daudenak.

b) Ez da baimenik emango lurra, zorua edo lurrazpia hondatu dezaketen landare espezieak edo landareak landatzeko.

c) Horretaz gain, erabiltzaileak ezin izango ditu espezie exotikoak edo inbaditzaileak landatu, ezta legez landatzea edo ereitea baimenduta ez dauden beste landare batzuk ere.

d) Era berean, ezin izango da inolako zuhaitzik landatu, ezta fruta arbolarik ere.

e) Ezin izango dira negutegiak, kutxak, elementu iltzatuak, txabolak, txorimaloak edo antzeko elementuak instalatu.

f) Debekatuta dago baratzeko laboreen hondakinak erretzea.

g) Ez da baimenik emango paisaia hondatzen edo bertan dauden instalazioak hondatzen dituzten elementuak instalatzeko, hala nola, bidoiak, andel osagarriak, xaflak, banagailuak, elementu disonantean edo antzekoak.

h) Ezin izango dira erabili plastikozko materialak, Udalak emango duen formazio ikastaroetan adieraziko direnak izan ezik.

i) Ez da baimenik emango partzeletan eraikinak eraikitzeko, ezta itzalperik, esekitokirik edo inguruaren itxura alda dezakeen beste elementurik jartzeko ere.

j) Ez da baimenik emango partzela edozein motatako hesiekin, harriekin, egurrekin, adreiluekin, blokeekin, eraikuntzako beste elementu edo mugagailu batzuekin ixteko, ortua markatzeko edo seinaleztatzeko edo haren ertzak markatzeko,

## 13.- APROVECHAMIENTO DE LA HUERTA

a) La huerta tendrá un uso exclusivamente agrícola y será cultivada según los principios establecidos por la normativa de agricultura ecológica en vigor. Queda, por tanto, prohibido utilizar, en sus cultivos, el uso de herbicidas, pesticidas y abonos químicos no autorizados por la legislación vigente en materia de agricultura ecológica. Tampoco se podrán emplear especies transgénicas o modificadas genéticamente.

b) No se permitirá el cultivo de especies vegetales o plantas que provoquen un deterioro de la tierra, del suelo o del subsuelo.

c) Asimismo, la persona usuaria no podrá plantar especies invasoras o aquellas otras cuyo cultivo o siembra no estuviera permitido por ley.

d) Igualmente, no se podrán plantar árboles ni arbustos de ningún tipo, incluso los que sean frutales.

e) No se podrá instalar invernaderos, cajas, elementos clavados, casetas, espantapájaros, o similares.

f) Se prohíbe la quema de restos del cultivo de huertas.

g) No se permite la instalación de elementos que deterioren el paisaje o que alteren las instalaciones existentes, tales como bidones, depósitos complementarios, chapas, separadores, elementos disonantes o similares.

h) No se podrán utilizar materiales de plástico, excepto los indicados en los cursos formativos que impartirá el Ayuntamiento.

i) No se permite la construcción de edificaciones en las parcelas, ni colocación de sombreados, tendederos o cualquier otro elemento que altere el aspecto del entorno.

j) No se permite el cierre de la parcela con vallas de cualquier tipo, piedras, maderas, ladrillos, bloques u otros elementos constructivos o delimitadores para cerrar, delimitar, marcar o señalar la huerta, sus esquinas u orillas que los

baldin eta Udalak ortuak markatzeko ezartzen dituenak ez badira.

k) Erabiltzaile bakoitzak bere ortuaren mugak errespetatuko ditu landatzeko orduan. Horretaz gain, ahalegina egingo da landaketak inguruko partzelen landaketei kalterik ez egiteko moduan antolatzeko.

l) Ezin izango da txakurrik edo beste animaliarik eraman ortuetara.

m) Biltzen den uzta norberaren kontsumorako izango da. Ezin izango da saldu.

n) Debekatuta daude eragozpenak eta usain txarrak sortzen dituzten erabilera edo jarrera guztiak, baita, gainerako erabiltzaileen jarduera eta gogobetetzea mugatzen edo ingurua kaltetzen dutenak ere.

o) Justifikatutako arrazoirik gabe, bi hilabete baino gehiagotan, ortua zaintzeari uzten baldin bazaio, baimena indargabetu ahal izango da, eta, ondorioz, ortua beste eskatzaile bati esleituko zaio.

p) Ortua Udalari itzuli beharko zaio beste erabiltzaile batzuek erabiltzeko baldintza egokietan, hau da, ortua garbi eta egoki utzi beharko da, hurrengo erabiltzaileak landatu ahal izan dezan. Horrek esan nahi du kendu egin beharko direla landaketarako erabili diren elementu guztiak (hesolak, gidak, e.a.).

## 14.- ERABILTZAILEEN BETEBEHARRAK

Hona hemen erabiltzaileek izango dituzten betebeharrak:

1.- Izendatutako ortua zaintzea eta egoera onean izatea, eta okupatutako lekua eta gainerako instalazioak segurtasun, osasungarritasun eta apaingarritasun publikoko egoera ezin hobeetan edukitzea. Hori dela eta, guztientzako guneak garbitzeaz eta esparruaren mantentze orokorraz arduratuko dira.

2.- Korridoretzat utzitako lekua libre eta garbi edukitzea.

establecidos por el Ayuntamiento para su delimitación.

k) Cada persona usuaria respetará los límites de su huerta durante el cultivo. Además, se intentará organizar el cultivo de manera que no perjudique al cultivo de parcelas colindantes.

l) No se pueden llevar perros, ni otros animales a las huertas.

m) La cosecha recogida será para el autoconsumo, no pudiendo destinarse a la venta.

n) Queda prohibido cualquier uso o comportamiento que provoque molestias, malos olores, limite el uso y satisfacción del resto de las personas usuarias de las huertas o afecte al entorno.

o) El abandono del cuidado de la huerta sin causa justificada durante más de dos meses podrá dar lugar a la revocación de la licencia y, consecuentemente, la huerta será adjudicada a otra persona solicitante.

p) La huerta deberá ser devuelta al Ayuntamiento en condiciones adecuadas para ser utilizada por nuevas personas usuarias, es decir, deberá dejar la huerta limpia y apta para ser cultivada por la siguiente persona usuaria. Esto significa que deberán ser retirados todos los elementos utilizados para el cultivo (estacas, guías, etc.).

## 14.- OBLIGACIONES DE LAS PERSONAS USUARIAS

Serán obligaciones de las personas usuarias las siguientes:

1. Vigilar y mantener en buen estado de la huerta asignada, así como conservar el espacio ocupado y el resto de instalaciones, en perfecto estado de seguridad, salubridad y ornato público haciéndose responsables de la limpieza de las zonas comunes y el mantenimiento general del recinto.

2. Mantener libre y limpio el espacio reservado a los pasillos.

3.- Erruen edo arduragabekerien ondorioz kaltetzen edo galtzen diren ondasunak edo ekipamenduak konpontzea edo berriz jartzea.

4.- Udalak dinamizazioaren eta ingurumen hezkuntzaren arloan antolatzen dituen jardueretan laguntzea.

5.- Udalak antolatzen dituen ikastaro, jardunaldi eta bileretara joatea, baldin eta ortuekin zerikusi zuzena badute.

6.- Udal langileei instalazioak ikuskatzen uztea, araudia behar bezala betetzen dela egiaztatzeko.

7.- Une oro, Udalak izendatutako ikuskatzailearen jarraibideak betetzea.

3. Deber de reparar o reponer aquellos bienes o equipos que resulten dañados o extraviadas por culpa o negligencia.

4. Colaborar en las actividades de dinamización y educación ambiental que organice el Ayuntamiento.

5. Acudir a los cursos, jornadas y reuniones que organice el Ayuntamiento directamente relacionadas con las huertas.

6. Permitir la inspección de las instalaciones, por personal municipal, a fin de comprobar el correcto cumplimiento de la normativa.

7. Respetar en todo momento las indicaciones de la persona inspectora designada por el Ayuntamiento.